

EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA 2025

IZEN-EMATEAREN OINARRIAK

ZER DA?

EuskarAbentura Espedizioa 2025 (6.edizioa) 127 gaztek osatutako espedizioa izango da, 2024ko uztailaren 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko duena.

PARTE-HARTZEKO BETEKIZUNAK

- **ADINA**
2008 edo 2009 urteetan jaioa/sortua izan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako gazteentzako.
2008, 2009 eta 2010 urteetan jaio/sortua izan Lapurdi, Baxe-Nafarroa, Zuberoa eta diasporako gazteen kasuan.
- **HIZKUNTZA:** Euskaraz jakin
- **JATORRIA:** **Zazpi lurralde euskaldunetatik** zein **diasporatik** datozen gazteak.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO BI MODU DAUDE:

GARRANTZITSUA: Deialdi batetik aurkeztu izanak ez du bestetik aurkezteko aukera ukatzen, hau da, bi bideetatik saia daiteke nahi izanez gero.

1. ZI-ZA LEHIAKETA (GAZTEA IRRATIA)

EuskarAbentura Elkarrekin GAZTEA IRRATIAREkin batera, 2025eko espedizioan parte hartzeko plaza bat (bakarra) lortzeko aukera zabalduko du, espedizioak daukan ohiko izen-emate epeaz gain (ondoren aurkituko duzuen modua).

ZI-ZA lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, hauek dira eman beharreko pausuak:

1. **BIDEOA SORTU:** Norbanako bakoitzak bideo bat sortu beharko du norbere burua aurkeztuz eta EuskarAbenturan plaza bat zergaitik merezi duen argudiatuz. Helburua: GAZTEA IRRATIko entzuleak eta bozka emateko prest daudenei konbentzitzea.
2. **BIDEOA BIDALTZEA:** Bideoa bidali beharko duzue izenematea@euskarabentura.eus helbidera **abenduaren 2tik urtarrilaren 8ra bitartean**.
3. **BOZKAK LORTU:** Bidalitako bideo guztien artetik 6 edo 9 izango dira bozketa fasera iritsiko direnak eta bideo horien egileak jakinaren gainean egongo dira. Aukeratutako bideoak **urtarrilaren 15etik 22ra** arte GAZTEA-ko webgunean egongo dira bozkak lortu ahal izateko eta zuen bideoei bozkak eman nahi dizkietenak GAZTEAko webgunean erregistratu behar izango dira.

ZI-ZA lehiaketaren bidetik plaza lortzeko aukera urtarrilaren 8ra arte bakarrik izango da. Behin data hau pasata, izena emateko ohiko deialditik soilik ahal izango dira hautagaitzak aurkeztu.

**Urtarrilaren 27an ZI-ZA lehiaketako bozkatuena izan dena, eta beraz, EuskarAbentura 2025 Espedizioko lehen hautatua iragarriko da sare sozialetan.*

2. HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO OHIKO DEIALDIA

FORMULARIOA BETE Hautagaitza aurkezteko, www.euskarabentura.eus webgunean, parte-hartu ataleko “Hautagaitzak 2025” orrialdean aurkituko duzuen izen-emate formularioa bete behar duzue. Bertan hautagaiaren eta tutore/gurasoen datuak bete ondoren jarraian azaltzen diren bi dokumentu hauen esteka txertatu beharko da formularioaren barruan:

1. AURKEZPEN BIDEO BAT

Gehienez minutu bateko bideo labur bat. Kontaiguzu nor zaren, EuskarAbenturan zergatik parte hartu nahi duzun, espediziotik espero duzuna, zein ekarpen egingo diozun taldeari... zu pixkatxo bat ezagutzeko aukera izan nahi dugu.

Kontuz! Ez dira Drive-eko estekak onartuko, [WETRANSFER](#) bidez sortu beharko duzue zuen bideoa bidaltzeko esteka. (Dokumentu honen amaieran WETRANSFER-eko esteka nola sortu azaltzen duen gida aurkituko duzue)

2. PROIEKTU BAT

Hautagai bakoitzak banakako proiektu edo lan bat egin beharko du. Proiektu hori egiteko sei formatu ezberdin dituzu aukeran, horietako batean proposatzen dizkizugun hiru gaietako bat jorratu beharko duzu

(Kontuz! Proiektu mota batzuetan dokumentu bat baino gehiago bidali beharko da. Ondo begiratu hurrengo orrietako baldintza taulak.)



BELDURRAK

Nork ez du beldur sentimendua pairatu ? Bada, guztiok izan gara, gutxi ala asko zerbaiten beldur nozbait. Jaiotzen garenetik eta gure heriotzaren egunera arte bizituko dugun sentimendu saihestesin batez ari gara, gizakiak biologikoki jaso izan duen eta esperientzia ez oso atsegin eta gogoangarrien lekuko den hortaz alegia. Sarri koldarkeriarekin uztartu izan dugu beldurra sentitzea, horrenbestez, gizakiaren aurkaririk handiena beharko luke izan beldurra. Baina ez, badu zantzu positibo bat gizabanakoarentzat, izan ere, beldurra mehatxu eta arriskuetatik babesten gaituela azpimarratzen dute hainbatek. Hartara, arrisku egoeren aurrean zuhertasunez jokatzera edo halako zerbaiten pareko litzateke oraingo hontan. Baina guztiok al ditugu beldur berdinak? Argi dago ezetz! Gutariko bakoitzak berezko beldur hoiere eraiakuntzan parte hartzen du, eta fabrikazio horretan hainbat faktorek eragiten dute. Zenbait soziologok diotenez, historian zehar sortu eta beraz existitu diren beldurrei erreparatzen badiogu, lehengo eta egungo beldurra oso bestelakoak direla esan dezakegu. Era berean, behin ta berriz, beldurra nagusitzen ari dela jakinarazten digute gizarte gatazkak, krisi ekonomikoa, adimen artifiziala... direla medio. Zein da zure ikuspuntua beldurrarekiko? Egoera ezberdinetan sentitu izan dituzun beldurrek lagundu ala kaltetu egin dizutela esango zenuke? Beraz, beldurra zuhertasunarekin ala koldarkeriarekin lotuko zenuke? Zeintzuk ziren lehengo beldur ohikoena? Zeintzuk gaur egungoak? Desberdintasunik ba al dago? Zergaitik uste duzu dela horrela? Noiz edo zein egoeretan agertzen diren lehen? Eta gaur egun?



**GIZARTEA :
INDIBIDUALISTA ALA KOLEKTIBISTA?**

Asko gara munduan elkarbizi garenok, 8 bilioi pertsona inguru zehazki. Mundu hau gizarte egitura jakin batek osatzen du eta norbanako bakoitzak zentzu bat ematen dio jaiotzen garenetik eta ondorengoei lekukoa pasatzen zaien momentura arte. Espazio eta denbora tarte jakinetan elkarbizitzen dihardugu uneoro eta hortaz, gizaki sozialak garelako esan daiteke. Beraz, zein da ba gizarte edota jendarte honetan bizirauteko gakoa? Bada, ongizate sozioafektiboa egungo gizarte kohesiorako berme bihurtu da. Baina nola ulertzen dugu giza-ongizatea? Gizarte bere osotasunean oso anitza da eta horren adierazle dira giza-ongizatea ulertzeko dauden ikuspegi ezberdinak. Gizarteak eta horrenbestez guk geuk sarri eztabaidatu dugun gai bat da indibidualistak ala kolektibistak ote garen edo jokaera indibidualagoekin ala komunitarioagoekin identifikatzen ote garen. Zuen ustetan talde zein komunitatean antolatzen gara kolektiboaren interesei, beharrei eta eskubideei erantzuteko? Ala gainerako eta taldeen gainera norbanakoa lehenesten dugula uste duzue? Zergaitik uste duzue jotzen dugula modu batekoak edo besteak izatera? Zein kasutan nabarmentze dira jokaera indibidualistak, edo kontrara, kolektibistak? Lehiakortasunak ba ote du eraginik honetan? Kronologikoki egoera aldatu dela esango zenukete? Baloreen transmisioari dagokionez, elkartzunez jokatzeko dugula esango zenukete? Ala geroz eta berekoiagoak ari gara bihurtzen?



KLIMA ALDAKETA

Azken urteotan hainbat izan dira egindako ahaleginak klima aldaketaren inguruan kontzientzia piztu eta, gizarte bezala, horri konponbidea jartzeko egindakoak. Aldaketa klimatikoak sortutako arazoak eta sortze daudenak behin eta berriz mahaigaineratzen ditugu, bederen dimentsio handiko ondorioen erantzule den gertakaria da eskuartean darabilguna. Dagoeneko klima aldaketaren ondorioak modu ezberdinetan bizi izan ditugu, besteak beste, ekosistemak pixkanaka aldatuz doazela ikusi dugu, poloak ur bihurtzen ari direla jakinarazi digute eta muturreko fenomeno meteorologikoen lekuko izan gara; lehorte izugarriak zein prezipitazio jasangaitzak. Ibai eta aintzirek gainezka egin dute eta itsas maila igotzea ekarri du, ondorioz, populatutako herri askoren desagertzea ekarriko luke eta horrekin batera migrazio masiboak. Eragina hain da nabarmena non turistok ere orain arte kontuan izan ez ditugun helmugak ezagutzeko hautua egiten dugun. Erabat aldatu dira turismo ohiturak eta lehen helmuga finakoak eta jendetsuak zirenak orain beste toki batzuegatik ordezkatu ditugu. Esate baterako, klima epeltzeak, eguzki izpi bila Kanariar Uharteetara bidaiatzen zutenen kopurua murriztu du, eta era berean, poloak nola urtzen diren bisitatzera joateko antolatutako bidaiak areagotu. Argi dago, arazo politiko eta ekonomikoen eragile da egun bizi dugun aldaketa klimatiko hau. Gauzak horrela; zeintzuk dira klima aldaketa ahalbidetzen duten ekintzak? Uste duzue jabetzen garelako egoeraren larritasunaz? Geure erantzukizun edota ardura dela esango zenukete? Gizabanakoon jardunbide egokiek egoeraren areagotzea ekidintza lukete? Nola irudikatzen duzue etorkizuna egoera honi konponbiderik bilatzen ez badiogu? Uste duzue fenomeno honi aurre egin diezaioketela? Nola?




INFORMAZIO ITURRI ETA DOKUMENTAZIORAKO IRADOKIZUNAK:




BELDURRAK	GIZARTEA : INDIBIDUALISTA ALA KOLEKTIBISTA?	KLIMA ALDAKETA
<ul style="list-style-type: none"> - BELDURRA https://zuzeu.eus/euskal-herria/beldurra/ - ZEREN BELDUN GARA? https://www.gazteberri.eus/zeren-beldur-gara/ - BELDURRAK BIDELAGUN https://www.berria.eus/bizigirot/beldurrak-bidelagun_1262321_102.html 	<ul style="list-style-type: none"> - KOLEKTIBISMOA. ZER DA ETA PERTSONENGAN DUEN ERAGINA. https://azbyka.com.ua/eu/kollektivizm/ - INDIBIDUALISMOAK HIRIAREN IDEIA NAGUSIA SUNTSITZEN DU. https://www.berria.eus/euskal-herria/indibidualismoak-hiriaren-ideia-nagusia-suntsitzen-du_1253932_102.html 	<ul style="list-style-type: none"> - GURE LURRA https://gurelurra.eus/klima-aldaketa/klima-aldaketaren-ondorioak/ - KLIMA-ALDAKETA DA GIZATERIAK AURRE EGIN BEHAR DION INGURUMEN-MEHATXURIK HANDIENA. https://es.greenpeace.org/eu/trabajamos-en/cambio-climatico/

ADI! Kontuan hartu beharrekoak

- EuskarAbentura Elkarteak izen-ematean proiektu guztiak jasotzen ditu, baina elkarteak ez da balorazioaz arduratzen.
- Proiektu guztiak Eusko Ikaskuntzako kideek baloratzen dituzte elkarteak emandako irizpideen arabera.
- Proiektuak baloratzailerik bidaltzerakoan anonimotasuna bermatzeko ziurtatu ezazue proiektuen barruan EZ dadila zuen izen-abizenik agertu.
- Elkarteak baloratzailerik bidalketa egiterakoan proiektuetako artxibo guztien izenak kodifikatu egiten ditu.
- Proiektuak bidali aurretik ondo irakurri hurrengo taulan ageri den informazioa eta egin beharrekoak.

PROIEKTUEN 6 FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK

 HISTORIKOA	 LITERARIOA	 IKUS-ENTZUNEZKOA
<p>1.TESTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 3-5 orrialde (azala aparte) - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroartea: 1,5 - Anexorik ez - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena <p>Adibidea: MartínezLópez_Amaiur</p>	<p>1.TESTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: (azala aparte) Olerkia: 3 orrialde Prosa: 3-5 orrialde - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroartea: 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena <p>Adibidea: MartínezLópez_Amaiur</p>	<p>1.BIDEOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Iraupena: 2-5 minutu - Generoa: dokumentala/fikzioa - Hizkuntza: Euskara - Formatua: MP4 edo AVI eta WETRANSFER esteka batean bidali (ADI! EZ dira Drive-eko estekak onartuko) - EZ DADILA EGILEAREN IZENA AGERTU BIDEOAN - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena_bideoa <p>Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_bideoa</p>
	<p>2.AZALPEN TESTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte) - Edukia: ekoizpen prozesuaren azalpena. Erabilitako baliabideak, gaiaren hautaketaren zergatia, izandako zailtasunak... - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera: Times New Roman 12 - Lerroartea: 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena_azalpena <p>Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena</p>	
<p>ADI! KASU! Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluaziora bidaliko eta ez dira parte-hartzaileen hautaketan kontuan hartuko.</p>		

 MUSIKALA	 PLASTIKOA	 SORMEN DIGITALA
<p>1.AUDIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Iraupena: 2-8 min - Hizkuntza: Euskara - Formatua: MP3 edo AVI eta WETRANSFER esteka batean bidali. (ADI! EZ dira Drive-eko estekak onartuko) <i>* Abesti ezagunen bertsoiak onartuko dira BAINA konposizio musikal originalak hobeto baloratuko dira.</i> - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena_audioa MartínezLópez_Amaiur_audioa 	<p>1.ARTELANA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gehienezko tamaina: 50x70x20. Neurri horietara egokitzen ez diren proiektuak ez dira onartuko. - Materiala/teknika: Askea (beira eta manipulatzeko arriskutsuak izan daitezkeen materialak ez erabili) - EGILEAREN IZENA EZ DADILA AGERTU <p>GOGORATU! Beranduenez martxoaren 5erako artelan originala hurrengo helbidera iritsi behar da eta postaz bidaliz gero beranduenez martxoaren 10erako.</p> <p>Helbidea: EuskarAbentura Elkarte Errotatxu Industrialdea (GetxoGasol) Z.G. 48993 – Getxo Gasolindegiko dendan utzi</p> <p>*Aurkeztutako proiektuak ezingo dira berreskuratu.</p>	<p>1. GARATUTAKO PROIEKTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> -Proiektua ikusteko edota deskargatzeko esteka azalpen testuaren baitan bidali. (ADI! EZ dira Drive-eko estekak onartuko) - Power Point-ak ez dira onartzen.
<p>2.AZALPEN TESTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 2-3 orrialde - Edukia: Obraren azalpena + Partitura/Hitzak - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena_azalpena MartínezLópez_Amaiur_azalpena 	<p>2.AZALPEN TESTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 2-3 orrialde - Edukia: Obraren garapenaren eta kontzeptuaren azalpena - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena_azalpena MartínezLópez_Amaiur_azalpena <p>3.OBRAREN ARGAZKIA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Formatua: PDF - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA ARGAZKIAN - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena_argazkia MartínezLópez_Amaiur_argazkia 	<p>2.AZALPEN TESTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte) - Edukia: produktuaren ideia, erabilitako teknologiaren azalpena, tresnaren azalpena (pantaila kapturekin) eta zailtasun nagusien ebazpena. - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN. - ARTXIBOA IZENDATU HONELA: Abizen1+Abizen2_izena_azalpena MartínezLópez_Amaiur_azalpena
<p>ADI! KASU! Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluaziora bidaliko eta ez dira parte-hartzaileen hautaketan kontuan hartuko.</p>		

EGUTEGIA 2025


<p>Martxoaren 5era arte (barne)</p>	<p>Izen-emate epea: Proiektua eta aurkezpen bideoa bidali</p>
<p>Apirilak 22</p>	<p>Behin-behineko hautatuen zerrenda argitaratuko da webgunean. Hautatuei jakinarazpena bidaliko zaie posta elektronikoko bidez.</p>
<p>Apirilak 22 - Apirilak 30</p>	<p>Epe honen barruan plaza BAIEZTATU (bermearen ordainketa eginez) edo plazari UKO egiten diozun adierazi beharko duzu. Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plaza BAIEZTATZEKO <p>Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien BERMEAREN ORDAINKETA (190 eurokoa, apirilaren 30ean beranduenez) egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute izenematea@euskarabentura.eus helbidera.</p> <p>Ordainketaren KONTZEPTUAN: Abizena+lzena+25 (Partehartzailearena)</p> <p>Adib: Martínez Amaiur 25</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plaza UKATZEKO <p>izenematea@euskarabentura.eus helbidera idatzi plazari uko egiten diozula adieraziz. Mezuaren kontzeptuan “Plazari UKO” jarritz.</p> <p>Jarraian eman beharreko pausuak mezu baten bidez jakinaraziko dizkizuegu. (Dokumentazio bidalketa)</p>
<p><u>KONTUAN EDUKI</u></p> <p>Espedizioan parte hartzeko hautatuak izan diren gazteetatik baten batek bere plazari uko egingo balio edota plaza gordetzeko derrigorrezkoa den bermea ordainduko ez balu bere plaza itxaron zerrendan geratu diren gazteei eskainiko zaie. Kasu horietan:</p>	
<p>Apirilak 30 - Maiatzak 8</p>	<p>Itxaron zerrendatik sartu diren hautatuentzako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plaza BAIEZTATZEKO <p>Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien BERMEAREN ORDAINKETA (190 eurokoa) egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute izenematea@euskarabentura.eus helbidera.</p> <p>Ordainketaren KONTZEPTUAN: Abizena+lzena+25</p> <p>Adib: Martínez Amaiur 25</p>
<p>Maiatzak 16</p>	<p>Hautatuak izan diren eta bermea ordaindu duten gazte guztiek, eskatuko zaien DOKUMENTAZIOA bidaltzeko AZKEN EGUNA izenematea@euskarabentura.eus helbidera.</p>

BIDEO ETA FITXATEGI ASTUNAK NOLA BIDALI

1. urratsa: Sartu “www.WeTransfer.com” webgunera zure nabigatzailean.

Horretarako, klikatu hemen: WETRANSFER

2. urratsa: “Add files” ataleko borobil urdinari sakatu eta zure ordenagailuko artxiboetara bideratuko zaitu. Jarraian artxiboa aukeratu eta egin klik gainean.



3. urratsa: “Get a link” atalean klikatu eta bidaltzeko prestatuko da ondorengo irudian ikusi daitekeen moduan. Ehuneko ehunean dagoela jartzen duenean zuk behar duzun **ESTEKA eskuratuko duzu!**

